elementu osagarri guztiak emateko bertatik amaieran iritsiko edota emango diren emariak zuzen erregulatu eta kontrolatzeko.

colaborando con los servicios técnicos municipales para dotarlo de todos los elementos adicionales necesarios para una correcta regulación y control de los caudales que finalmente lleguen y/o se entreguen desde el mismo.

**<u>LAUGARRENA</u>.- ANTOLAKETA BALDINTZAK**

Bilboko Hornidura Sistemako "aktiboen" atal garrantzitsu bat aurrerantzean BBUPk kudeatuko duenez, akordio honen esparruan, une honetako antolaketa egituran edota osaeran aldaketa garrantzitsuak ekarriko ditu, eta bi entitateetan izango du eragina; izan ere, alde batetik, horietako batek orain arte egin behar zituen hainbat lan ez ditu aurrerantzean egin beharko, eta beste entitateak, hortaz, funtzio horiek bereganatu beharko ditu.

Lagapen honen eraginpean izango diren udal lantaldeko langileak honako hauek dira:

- Gradu erdiko teknikaria, lehen mailako udal sarearen arduraduna une honetan.
- Ordunte eta Zolloko presetako zazpi zaintzaileak
- Zabalbideko biltegiko operario bat

Aipatutako langileak legez dagozkien baldintzekin atxikiko dira BBUPra, **eraginpeko funtzionarioek aldez aurretik eta berariaz hala onartzen badute.**

BBUPk udal lantaldeko langile horiek hornidurako ustiapeneko antolaketan bereganatzeko konpromisoa hartu du, ondorio guztiekin, ados agertu badira.

**<u>CUARTA</u>- CONDICIONES DE ORGANIZACIÓN.**

El hecho de que una parte tan importante de los "activos" del Sistema de Abastecimiento de Bilbao pasen a ser gestionados por el CABB, en el marco del presente Acuerdo, introduce cambios de consideración en la actual composición y/o estructura organizativa que afectará a ambas Entidades ya que, por un lado, una de ellas se libera de las tareas que ha venido asumiendo hasta la fecha, al tiempo que la otra deberá hacerse cargo de las mismas.

El personal de plantilla municipal que se verá afectado por esta cesión, será el siguiente:

- El Técnico de Grado Medio, actual responsable de la Red Primaria municipal.
- Los siete Vigilantes de las presas de Ordunte y Zollo.
- Un Operario en el Depósito de Zabalbide

La adscripción del referido personal al CABB se realizará en los términos que legalmente proceda, **previa aceptación expresa de los Funcionarios afectados.**

El CABB se compromete a incorporar a todos los efectos a su organización de Explotación de Abastecimiento a dicho personal de la plantilla municipal, que haya manifestado expresamente su conformidad.

**BOSGARRENA.- BALDINTZA EKONOMIKOAK**

Deskribatu den zerbitzuaren prestazioa atxikitzeko baldintzak izaera ekonomikoa daukaten hurrengo akordioetan gauzatuko dira, honela laburbilduz:

Bilboko Udalak beharrezko baliabide ekonomikoak emango dizkio BBUPri lagatako azpiegituren hornidura, kontserbazio eta mantentze eta langileen gastuei aurre egiteko, urteko transferentzia arrunt bat eginez, udalak prestazio berberetarako izandako kopuru baliokidean.

Akordio honen oreka ekonomikoari eustea bermatzeko, udalerriko ur hornidurako hornitzaile bakar gisa BBUPren posizioak ez du aldatuko ur horniduraren kostua, akordio hau indarrean egongo ez balitz udalak izango lukeenarekin konparatuta; horretarako, hamasei hektometro kubikoko neurria (16 Hm3) ezarri da berme atalase gisa, fakturatzetik salbuetsita.

Bidenabar, Bilboko Udalak une honetan dituen diru-sarreren parekoak izango ditu, orain arte Ordunte-Sollano sistemak ematen zuen zerbitzuak hornitzen zituen udalen ur hornidura tarteko, hau da, Enkarterriko Balmaseda, Zalla, Gordexola eta Gueñes udalerriak. Kontzeptu horregatik, BBUPk udalerri horiei benetan emandako bolumenei dagozkien diru-sarrerak ordainduko dizkio Bilboko Udalari.

**QUINTA.- CONDICIONES ECONÓMICAS.-**

Las condiciones de incorporación de la prestación del servicio que se han descrito, se materializan en los siguientes acuerdos de carácter económico, que se resumen de la siguiente manera:

El Ayuntamiento de Bilbao dotará a CABB de los recursos económicos necesarios para que pueda atender los gastos de personal, mantenimiento, conservación y suministros de las infraestructuras cedidas mediante una transferencia corriente anual de un importe equivalente al soportado por éste para idénticas prestaciones.

Para garantizar el mantenimiento del equilibrio económico del presente Acuerdo, la posición de CABB como proveedor único del abastecimiento de agua del municipio no alterará el coste del suministro de agua respecto del que el Ayuntamiento soportaría de no operar el presente Acuerdo, fijando, al efecto, un umbral de garantía de dieciséis hectómetro cúbicos (16 Hm3), exento de facturación.

De igual manera, el Ayuntamiento de Bilbao mantendrá unos ingresos equivalentes a los actuales por el abastecimiento de agua a los ayuntamientos que hasta ahora el sistema de Ordunte-Sollano ha venido dando servicio, es decir, los municipios encartados de Balmaseda, Zalla, Gordexola y Güeñes. Por este concepto, el CABB abonará al Ayuntamiento de Bilbao los ingresos correspondientes a los volúmenes realmente suministrados a dichos municipios.

Horrez gain, lagatako azpiegituren Inbertsio Plan baten zuzkidura bateratua adostu da, BBUPren funtsen %62,50eko urteko ekarpenarekin eta Bilboko Udalaren %37,50, azpiegituren lagapen epean egingo diren inbertsioen euskarri ekonomiko gisa.

Así mismo, se acuerda la dotación conjunta de un Plan de Inversiones de las infraestructuras cedidas con una aportación anual de fondos de CABB del 62,50% y del Ayuntamiento de Bilbao del 37,50%, como soporte económico de las inversiones que se acuerden ejecutar a lo largo del plazo de cesión de las infraestructuras.

Horretarako honako baldintza ekonomiko hauek ezarri dira:

Para ello se establecen las siguientes condiciones económicas:

## 5 Eragiketa gastuak

BBUPko lantaldean sartuko diren langileen ordainsariei dagozkien gastuei aurre egiteko, eta udalak lagatako eta aurrerantzean BBUPk bere gain hartu beharko dituen azpiegituren kontserbazio, mantentze, konponketa, hobekuntza, ustiapen eta horniduren gastuei aurre egiteko, akordio honen indarraldiko ekitaldi bakoitzean Bilboko Udalak transferentzia arrunt bat egingo dio BBUPri, urteko 2.109.617 euroko kopuru zenbatetsian; zenbateko hori kalkulatzeko aintzat hartu dira akordio hau indarrean sartzen denean BBUPren betebehar ekonomiko bihurtuko diren prestazioek udalari eragindako gastuak, betiere I. Eranskinean jasotako xehetasunekin bat etorriz.

## 5 Gastos de Operación

Para hacer frente a los gastos correspondientes a las retribuciones del personal que pasará a formar parte de la plantilla del CABB—y a los gastos de conservación, mantenimiento, reparación, optimización, explotación y suministros de las infraestructuras que el Ayuntamiento cede y que deberá asumir en adelante el CABB, el Ayuntamiento de Bilbao contemplará en cada uno de los ejercicios de vigencia del presente Acuerdo una Transferencia Corriente a favor de CABB por un importe anual estimado de 2.109.617 €, importe calculado en base a los gastos que representan para el Ayuntamiento las prestaciones que, desde la entrada en vigor de este acuerdo, pasarán a formar parte de las obligaciones económicas del CABB, todo ello de acuerdo al detalle que figura en el Anexo I

Ordainketa hiru hilabetero egingo da.

El abono se formalizará mediante pagos trimestrales.

Kopurua 2018ko ekitalditik aurrera eguneratuko da, urtero, aurreko urteko abenduko autonomia erkidegoko KPIa aplikatuz (Kontsumo Prezioaren Indizearen aldakuntza).

Este importe se actualizará a partir del ejercicio del 2018 con una periodicidad anual, aplicando el IPC (la variación del índice de precios al consumo) de la CCAA del mes de diciembre del año anterior.

Hemen adostutako transferentzia arruntaren zenbatekoa alda dezakeen beste edozein eragin ekonomiko Akordioaren Jarraipen Batzordeak onartu eta bi

Cualquier otra incidencia de carácter económico que altere el importe de la transferencia corriente aquí acordada, será objeto de sometimiento a la aprobación de la

erakundeetako organo eskudunen beharrezko onarpenak beharko ditu.

Comisión de Seguimiento del Acuerdo y las aprobaciones necesarias por los órganos competentes en ambas Instituciones.

Horrez gain, hemen arautzen den zerbitzuaren integrazioko baldintza ekonomikoko atal gisa, gastuak bereganatzeari dagokionez, BBUPek, lehen mailan Bilbo udalerri osoko hornidurako sustatzaile berri gisa, bermatu egingo du udalak aurrerantzean ere bere gain hartu beharko duen ur horniduraren kostua ez dela aldatuko hemen hartutako erabakiengatik, aldaketak ez badu gainditzen hamasei hektometro kubikoko ur kontsumoa (16 Hm3), fakturatzetik salbuetsita; azken bost urteetan udal sistemako altan hornidurako gehienezko aprobetxamendua baino handiagoa da.

Así mismo, como parte integrante de las condiciones económicas de la integración del servicio que aquí se regula en lo que a asunción de gastos se refiere, el CABB como nuevo proveedor del abastecimiento en Red Primaria de la totalidad del municipio de Bilbao, garantizará que el coste de suministro de agua que el Ayuntamiento deberá seguir asumiendo no sufrirá alteración derivada por los acuerdos aquí adoptados que no sean cambios en el consumo de agua más allá de una cuantía de Dieciséis Hectómetros cúbicos (16 Hm3), exentos de facturación, volumen superior al máximo aprovechamiento de abastecimiento en alta del Sistema municipal en los últimos 5 años

### 5.1 <u>Inbertsio Plana</u>

Akordio hau indarrean dagoen bitartean, Funts Izendun Zehatz bat eratuko da, Inbertsio Funtsa, bi erakundeen ekarpen ekonomikoak urtero jasotzeko; horri esker, akordio honen esparruan BBUPk lizitatu, esleitu eta gauzatuko dituen inbertsioen kontratuen hornidura posible izango da. Bi erakundeek 2018ko ekitaldian formalizatuko dute lehenengo ekarpen ekonomikoa.

a) Bilboko Udalaren ekarpena Inbertsio Funtsean urteko kapital transferentzia baten bitartez egingo da, 300.000 eurokoa, hau da, Inbertsio Funtseko urteko horniduraren %37,50.

### 5.1 <u>Plan de Inversiones</u>

Durante el plazo de vigencia del presente Acuerdo, se constituirá un Fondo Nominativo Específico, el Fondo de Inversiones, en el que se recojan anualmente las aportaciones económicas de ambas Instituciones, lo que permitirá la dotación de los distintos contratos de inversión que licitará, adjudicará y ejecutará el CABB en el marco del presente Acuerdo. La primera aportación económica se formalizará por ambas Instituciones en el ejercicio 2018.

a) La aportación del Ayuntamiento de Bilbao al Fondo de Inversiones se formalizará mediante una Transferencia de Capital anual por importe de **300.000 €**, es decir, el 37,50% de la dotación anual del Fondo de Inversiones.

Bilboko Udalak kopuru hori BBUPri gehienez hilabeteko epean ordainduko dio, ekitaldi bakoitzerako indarrean dagoen udal aurrekontua indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita.

Urteko 300.000 euroko kopurua urtero areagotuko da, urteko %1eko eguneratze tasa aplikatuz.

b) Bestalde, BBUPk urtero 500.000 euroko ekarpena egingo du Inbertsio Funtsean, hau da, Inbertsio Funtseko urteko horniduraren %62,50.

BBUPk kopuru hori Inbertsio Funtsari gehienez hilabeteko epean ordainduko dio, ekitaldi bakoitzerako indarreko aurrekontua indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita.

BBUPk urtero egingo duen ekarpena udal ekarpenaren ehuneko berean areagotuko da, hau da, urteko % 1.

Inbertsio Funtsak, hemen ezarritako urteko ekarpenekin, izaera independentea eta finalista izango du. Funts horrekin egingo diren inbertsioak identifikatzeko modukoak izan beharko dira, eta bi erakundeek emandako baliabideak lagatako azpiegituretan erabili ahalko dira, esleipen bajak eta obrak egiteko egokitzapenak barne, neurri desberdinean. Ekitaldi bakoitzaren amaieran Inbertsio Funtsean eskuragarri dauden saldoak mantendu egingo dira hurrengo ekitaldietan, harik eta Akordioaren Jarraipen Batzordeak aurreikusitako inbertsioetan erabili arte.

BBUPk, Udalarekin lankidetzan, akordioaren indarraldiaren lehen urtean lagatako instalazio eta azpiegituren Inbertsio Plana egiteko konpromisoa hartu du.

El Ayuntamiento de Bilbao abonará este importe al CABB en el plazo máximo de un mes desde la fecha de entrada en vigor del Presupuesto Municipal vigente para cada uno de los ejercicios.

El importe anual de 300.000 € se incrementará anualmente a una tasa de actualización 1% anual.

b) Por su parte, el CABB aportará al Fondo de Inversiones un importe anual de 500.000 €, es decir, el 62,50% de la dotación anual del Fondo de Inversiones.

El CABB formalizará la aportación al Fondo de Inversiones en el plazo máximo de un mes desde la fecha de entrada en vigor de su Presupuesto para cada uno de los ejercicios.

La aportación anual que realice el CBB se incrementará en el mismo porcentaje que la aportación municipal, es decir, un 1% anual.

El Fondo de Inversiones dotado con las aportaciones anuales que aquí se fijan tendrá un carácter independiente y finalista. Deberán poderse identificar las inversiones que se ejecuten con el mismo, utilizándose todos los recursos aportados por ambas instituciones en las infraestructuras objeto de cesión, incluidas las bajas de adjudicación y los ajustes en ejecución de obras en más o en menos. Los saldos del fondo de inversiones disponibles al cierre de cada ejercicio se mantendrán en los ejercicios futuros hasta su utilización en las inversiones previstas por la Comisión de Seguimiento del Acuerdo.

El CABB en colaboración con el Ayuntamiento, se compromete a elaborar durante el primer año de la vigencia del Acuerdo el Plan de Inversión de las Infraestructuras e instalaciones objeto de cesión.

Inbertsio Funtsarekin egin nahiko diren inbertsioak Jarraipen Batzordeak onartu beharko ditu.

Las inversiones que se proyecten ejecutar con el Fondo de Inversión serán sometidas a aprobación de la Comisión de Seguimiento.

Urtero, BBUPk Inbertsio Funtsaren enplegu eta zuzkiduren egoeraren berri emango dio Obra, Zerbitzu, Hiri Eraberritze eta Espazio Publikoaren Sailari.

Anualmente, el CABB remitirá al Área de Obras, Servicios, Rehabilitación Urbana y Espacio Público un estado de situación de las dotaciones y los empleos que presenta el Fondo de Inversiones.

Hemen hartutako erabakiek ez dute eraginik izango udal obretarako laguntza ekonomikoen planaren bitartez Bilboko Udalak urtero jasotzen dituen laguntzetan.

No se verán afectadas por los acuerdos aquí adoptados las ayudas que el Ayuntamiento de Bilbao recibe anualmente a través del Plan de Ayudas económicas a obras municipales.

II. Eranskinean aurreikusitako jarduketei ekiteko akordio honetan aurreikusitako hasierako inbertsioak urte anitzekoak badira ere, indarraldian zehar, Bilboko Udalak eta BBUPk erabiltzeko lagatako sistemei lotutako beste jarduketa osagarri batzuk planteatu eta sustatu ahalko dituzte; horien finantzaketa independentea izango da eta, hala badagokio, bi entitateen arteko erabaki adostuaz ebatziko dira.

Con independencia del régimen plurianual de inversiones inicialmente previsto en el presente Acuerdo para abordar las actuaciones contempladas en el Anexo II, y durante el mismo período de vigencia, el Ayuntamiento de Bilbao y el CABB podrán plantear e impulsar otras actuaciones adicionales vinculadas a los Sistemas cedidos al uso, cuya financiación será independiente y determinada, en cada caso, de común acuerdo entre ambas Entidades.

Akordio honen ondorioak bukatu eta gero, erabiltzeko lagatako azpiegiturak itzuli egingo dira, eta horrek ez dio Udalari inolako kosturik eragingo.

Una vez finalizados los efectos del presente Acuerdo, se producirá la reversión de las infraestructuras objeto de cesión de uso sin coste alguno para el Ayuntamiento.

### 5.2 <u>Sistema bateratuko aldaketa operatiboen ondorio ekonomikoak</u>

Sollanoko EUT eta BBUPko Ezkerraldeko Sarea (Las Carreraseko biltegia) lotzeko hodi berrietako obrak bukatu ondoren, sistema bateratuko operazioan erreserba eta berme irizpide berriak aplikatzeak errendimendua murriztea eragin dezake, BBUPri laga gabeko hidroelektrikoen ustiatze instalazioen une honetako

### 5.2 <u>Repercusión económica de los cambios operativos del sistema unificado.</u>

La aplicación de nuevos criterios de reserva y garantía en la operación del Sistema unificado, una vez concluidas las obras de la nueva conducción que conectará la Red de la Margen Izquierda del CABB –Depósito de Las Carreras - con la ETAP de Sollano, podrá ocasionar mermas de rendimiento con relación a la actual forma de funcionamiento

funtzionamendu motari dagokionez.

de las instalaciones de explotación Hidroeléctricas no cedidas al CABB.

Hain zuzen, Ordunteko urtegian mantentzeko balizko erreserba bolumen estrategikoak ezartzeak aipatutako urtegiko kentze programa aldarazi dezake urteko zikloan, une honetan ustiatzen ari den moduari dagokionez; hala, Sollanoko EUT eta Ordunteko urtegipean dauden aprobetxamendu hidroelektrikoen errendimendua murriztea ekar dezake, baita aldaketa nabarmenak aipatutako EUTko edateko uraren ekoizpenean ere.

En efecto, el establecimiento de unos posibles volúmenes de reserva de carácter estratégico a mantener en el embalse de Ordunte, podrá alterar el programa de detracciones del citado embalse en el ciclo anual, tal y como se está explotando en la actualidad y, en tal sentido, podrá suponer una reducción de los rendimientos de los aprovechamientos hidroeléctricos de pie de presa de Ordunte y de la ETAP de Sollano, así como también, cambios sustanciales en la producción de agua potable de la citada ETAP.

Arazo garrantzitsua izango litzateke, bereziki aipatutako bi aprobetxamenduen kasuan, une honetan hirugarrenek operatzen baitituzte lagapen araubidean.

Se trataría de un problema relevante, especialmente en el caso de los dos aprovechamientos citados, al ser operados actualmente por terceros, en régimen de Concesión.

Horregatik, galera edota erabilera muga horiek (lortu gabeko irabaziak, etab.) BBUPk hartuko ditu bere gain, gastu osagarri gisa Ordunte-Sollano Zadorra-Beteluri Sistema Integratuko Bermea areagotzearen kontzeptuan; kasuan kasuko operadoreei konpentsazio ekonomikoa emango zaie, dokumentu honen markoan, eraginpeko aldeek aldez aurretik adostutako formula bati esker.

Es por ello, por lo que dichas pérdidas y/o limitaciones de uso – lucros cesantes, etc. -, serán asumidas por el CABB y a su cargo, como gastos adicionales en concepto de incremento de la Garantía del Sistema Integrado Ordunte-Sollano Zadorra-Venta Alta, siendo compensados económicamente a sus respectivos Operadores en el marco del presente documento, de acuerdo a una fórmula previamente consensuada con las partes afectadas.

Hornidurako sistema bateratuko operadore berria izango den aldetik, BBUPk zehaztuko du, urteko zikloan, Ordunteko urtegitik egin beharreko huste araubidea, operadore hidroelektrikoek egin beharko dutena, aurreko paragrafoan ezarritako konpentsazioarekin.

Será el CABB, en su condición de nuevo operador del Sistema unificado de Abastecimiento quien determine, en el ciclo anual, el régimen de desembalses a realizar desde la presa de Ordunte, al cual deberán someterse los Operadores Hidroeléctricos, si bien, con el régimen compensatorio establecido en el párrafo anterior

**<u>SEIGARRENA</u>.- BENETAKO LAGAPENA**

**<u>SEXTA</u>.-CESIÓN EFECTIVA**

Udal Hornidurako Lehen mailako Sareko azpiegiturak BBUPren esku uztea, zein

La puesta a disposición al CABB de las infraestructuras de la Red Primaria de

zerbitzu horri lotutako udal langileak bereganatzea, dokumentu honen hirugarren baldintzaren arabera, baldintza horretan aipatutako zerbitzuen kontratuen lagapenak errealak diren unean egingo dira.

Abastecimiento Municipal, así como la adscripción del personal de la plantilla municipal afecto al servicio, se producirá en el momento en el que de acuerdo con la condición Tercera del presente documento, se hagan efectivas las cesiones de los contratos de servicios referidos en dicha Condición.

**<u>ZAZPIGARRENA</u>.- AKORDIOAREN INTERPRETAZIOA**

Akordio hau administratiboa da; horrenbestez, akordio honen garapen eta interpretazioa ordenamendu juridiko administratiboaren arabera arautuko dira.

Akordio honek zein akordioaren garapenak sorraraz ditzaketen balizko interpretazio arazoak horretarako sortutako Jarraipen Batzordeak ebatziko ditu, dokumentu honetako ZORTZIGARREN klausulan ezarritakoarekin bat etorriz.

**<u>SEPTIMA</u>.- INTERPRETACIÓN DEL ACUERDO**

El presente Acuerdo es de naturaleza administrativa, rigiéndose en consecuencia, en cuanto a su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo.

La resolución de los posibles problemas de interpretación que pueda plantear el presente Acuerdo o su ejecución, corresponderá a la Comisión de Seguimiento que se creará a tal efecto, de acuerdo a lo que se establece en la cláusula OCTAVA del mismo.

**<u>ZORTZIGARRENA</u>.- JARRAIPEN BATZORDEA**

Akordio hau gauzatu eta interpretatzeko jarraipen batzorde bat eratu da; lau kide izango ditu, Bilboko Udaleko bi ordezkari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko bi ordezkari. Dokumentu sinatzaileek izendatuko dituzte honako funtzio hauek betetzeko:

- Akordioaren bilakaera eta jarraipen kontrola egitea, baita alde sinatzaileek bertan hartutako konpromisoena ere.
- BBUPk egin beharreko Azpiegitura eta Instalazioen Inbertsio Planaren edukia eta irismena berrikustea eta

**<u>OCTAVA</u>.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO.-**

Se constituye una Comisión de seguimiento para la interpretación y ejecución del Acuerdo, que estará compuesta por cuatro representantes, dos en representación del Ayuntamiento de Bilbao y otros dos por el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, que serán respectivamente designados por las partes firmantes del mismo, para el desempeño de las siguientes funciones:

- Realizar un control del seguimiento y evolución del, Acuerdo así como de los compromisos adquiridos en el mismo por las partes firmantes.
- Revisar y validar, en su caso, el alcance y contenido del Plan de Inversiones de las Infraestructuras e Instalaciones que ha de

baliozkotzea, hala badagokio, akordio honen II. Eranskinean ezarritako kontzeptuetan zentratuta, baita proposamenen ondorioz sortuko diren eraikuntza proiektuak ere.

- Aurreko puntutik eratorritako kontratazio espedienteen jarraipena eta kontrola
- Erabiltzeko lagatako sistemetan gara daitezkeen beste edozein jarduketa berrien aukerei buruzko ekimenak sustatzea edota bideratzea, akordio honen inbertsio aurreikuspenak alde batera utzita.
- Akordio honetan jasotako baldintzen interpretazio edota garapeneko balizko arazo oro konpontzea

elaborar el CABB, centrado en los conceptos establecidos en el Anexo II de este Acuerdo así como los proyectos constructivos resultantes de sus propuestas.

- Seguimiento y control de los expedientes de contratación que se deriven del punto anterior.
- Canalizar y/o impulsar iniciativas sobre la oportunidad de cualesquiera otras nuevas actuaciones que pudiesen ser abordadas en los Sistemas cedidos al uso, al margen de las previsiones de inversión de este Acuerdo.
- Resolver todos los posibles problemas de interpretación y/o desarrollo de las condiciones recogidas en el presente Acuerdo.

**<u>BEDERATZIGARRENA</u>.- BESTE BETEBEHAR BATZUK**

Akordio honen indarraldian zehar, Bilboko Udalak bere esku geratutako Hornidura Sistemako atalak birgaitu eta berritzeko politika aktiboak izateko eta bultzatzeko konpromisoa hartu du (hornidura sareak, ponpatze estazioak, biltegiak, etab.); bidenabar, sistema horretako ihesak murriztu eta kontrolatzeko kanpainekin jarraituko du, une honetako errendimenduak mantenduz edota hobetuz, eta, azken finean, udal mugarte horretan ur baliabideen kudeaketa etengabe hobetuz.

**<u>NOVENA</u>.-OTRAS OBLIGACIONES.**

Durante el período de vigencia del presente Acuerdo, el Ayuntamiento de Bilbao se compromete a mantener e impulsar una política activa en materia de rehabilitación y renovación de los distintos elementos del Sistema de Abastecimiento que quedaría a su cargo (Redes de Distribución, depósitos, estaciones de bombeo, etc.) continuando, igualmente, con las campañas de control y reducción de fugas en dicho Sistema, manteniendo y/o mejorando los actuales rendimientos y contribuyendo, en definitiva, a una mejora continua en la gestión de los recursos de agua en este Término Municipal.

**<u>HAMARGARRENA</u>.- AKORDIOAREN IRAUPENA, ONDORIOAK ETA LUZAPENA**

Baldintzen akordio honek ez du ekarriko alde inplikatuen eskumenei uko egitea edo aldaraztea; akordio honen bitartez haien

**<u>DÉCIMA</u>.-EFECTOS, DURACIÓN Y PRÓRROGA DEL ACUERDO.**

Este Acuerdo de condiciones no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen

gain hartzen dituzten konpromisoen ardurak baino ez dituzte izango.

únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

Baldintzen akordioak sinatzen den unetik izango ditu ondorioak eta alde inplikatuek une horretatik aurrera izango dituzte aipatutako betebeharrak; horrez gain, sinatzen den unetik zenbatzen hasita HOGEI (20) URTEKO iraupena izango du.

El Acuerdo de condiciones surtirá efectos y obligará a las parte intervinientes desde su firma, y tendrá una duración de VEINTE (20) AÑOS, contados a partir de la fecha de firma del mismo.

Akordioa luzatu ahalko da, horretarako bi luzapen ezarriz; luzapen bakoitza 10 urtekoa izango da.

El Acuerdo podrá ser prorrogado estableciéndose al efecto dos prórrogas, de 10 años cada una de ellas.

Akordioa iraungi baino gutxienez BI URTE lehenago dokumentua berrikusi egingo da, bereziki inbertsioei buruzko atala; hala badagokio, luzapen aldietarako inbertsioen plan berri bat ezarriko da. Luzapenik adosten ez bada, alde sinatzaileen arteko edozeinek salatu egin beharko du iraungi baino lehen tarte berberarekin; izan ere, une honetako egituraren arabera segidako traktu kontratuak berriz antolatzea praktikan oso konplexua izango litzateke.

Será objeto de revisión con al menos DOS AÑOS de antelación a la fecha de vencimiento del mismo, especialmente, en lo que al capítulo de inversiones se refiere, estableciéndose, en su caso un nuevo plan de inversiones para los periodos de las prórrogas. En caso de no acordarse dichas prórrogas, deberá ser denunciado por cualquiera de las partes suscribientes con análoga antelación antes de su fecha de vencimiento, dada la complejidad que tendría en la práctica volver a reordenar los contratos de tracto sucesivo con arreglo a su estructura actual.

Akordioa iraungi egingo da dela indarraldia bukatzeagatik, dela aldeetakoren batek baldintzaren bat hautsi duelako.

El Acuerdo se extinguirá, o bien por el trascurso del plazo de vigencia o por incumplimiento por alguna de las partes.

Bilboko Udalak alde bakar gisa akordioaren indarraldia iraungi aurretik bukarazteko eskaera egiten badu, BBUPri ez dagozkion arrazoiak direla medio, eta BBUPk ez baditu bere gain hartutako konpromisoak esplizituki urratu, orduan Bilboko Udalak BBUPek egindako inbertsioetan metatutako zenbatekoa ekonomikoki itzuli beharko dio

En el supuesto caso de que el Ayuntamiento de Bilbao demandase unilateralmente su extinción antes de finalizar su período de vigencia, por razones ajenas al CABB, y sin que haya mediado ningún tipo de incumplimiento explícito de los compromisos asumidos por parte de esta última Entidad, obligará al primero a restituir

BBUPri, aipatutako akordioa indarrean egin den aldian sortutako amortizazioak kenduta.

económicamente al segundo el importe acumulado de las inversiones realizadas por el CABB, deducidas las amortizaciones durante el tiempo en el que haya estado en vigor el citado Acuerdo.

Alderantziz gertatuz gero, hau da, BBUPk alde bakar gisa aipatutako akordioa indarrean dagoen bitartean akordioa bertan behera uztea proposatzen badio Bilboko Udalari, eta Udalak ez badu berariaz baldintzarik urratu, orduan BBUPk ez du eskubiderik izango akordioa indarrean egon den bitartean lagatako azpiegituretan Partzuergoak berak egindako inbertsioen zenbatekoa berreskuratzeko.

En el caso inverso, es decir, si el CABB planteara unilateralmente al Ayuntamiento de Bilbao dicha extinción durante el plazo de vigencia del referido Acuerdo, sin que hayan tenido lugar causas expresas de incumplimientos por parte de esta última Entidad, el CABB no tendrá derecho a recuperar el importe de las inversiones por él realizadas en las infraestructuras objeto de cesión durante el tiempo en el que haya estado vigente el mencionado Acuerdo.

Eta ezarritakoarekin ados daudela frogatzeko, agertutako aldeek dokumentua sinatu dute, bi kopiatan, goiburuan aipatutako leku eta datan.

Y en prueba de conformidad con lo establecido, firman .los comparecientes, por duplicado ejemplar en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

Bilbon, 2017ko ekainaren 30ean

Bilbao, 30 de junio de 2017

BILBOKO UDALAREN
ALKATE-UDALBURUA

ALCALDE-PRESIDENTE DEL EXCMO.
AYUNTAMIENTO DE BILBAO

Sr. D. Juan María Aburto Rike



BILBAO BIZKAIA UR
PARTZUERGOAREN PRESIDENTEA

PRESIDENTE DEL CONSORCIO DE
AGUAS BILBAO BIZKAIA

D. Ricardo Barkala Zumelzu



## I. ERANSKINA

### BBUPi ZUZENDUTAKO TRANSFERENTZIAREN XEHETASUNAK, LAGATAKO LEHEN MAILAKO SAREKO HORNIDUREN ETA MANTENTZE-LANEN ETA LANGILEEN KOSTUAK BEREGANATZEARI DAGOKIONA

Eranskin honetan Bilboko Udalak BBUPri ordaindu beharreko urteko transferentzia arrunta eratuko duen kopurua kalkulatzeko oinarritzat baliatu diren kontzeptu eta zenbatekoak zehaztu dira; aipatutako transferentzia akordioa indarrean sartzen den unetik BBUPren esku geratuko diren langile, zerbitzu eta hornidura kostuen truke ordainduko da.

Jarraian deskribatu diren kontzeptuek Bilboko Udalari eragiten dizkioten kostua hartu da oinarritzat, 2016ko ekitaldirako eskuragarri ditugun datuetan oinarrituz (akordioa sinatu den unean likidatutako azken ekitaldia baita):

- Langileen urteko kostuak, 2016ko ekitaldirako finkatutako ordainsari gordinak, BBUPan zerbitzu honi atxikitako 9 langileri dagokienez; 467.359,22 eurotan kalkulatu da.
- Ur sarearen mantentze, konponketa eta hobekuntza lanen

## ANEXO I

### DETERMINACIÓN DE LA TRANSFERENCIA A CABB POR LA ASUNCIÓN DE LOS COSTES DE PERSONAL, MANTENIMIENTO y SUMINISTROS DE LA RED PRIMARIA OBJETO DE CESIÓN

En el presente anexo se detallan los importes y conceptos que han servido de base de cálculo para la determinación del importe que constituirá la Transferencia Corriente anual que el Ayuntamiento de Bilbao abonará al CABB por los costes de personal, servicios y suministros que desde la entrada en vigor del presente Acuerdo correrán a cargo del CABB.

Se ha tomado como base el coste que supone para el Ayuntamiento de Bilbao los conceptos que a continuación se describen, en base a los datos disponibles para el Ejercicio 2016, último ejercicio liquidado al día de la firma del Acuerdo:

- Costes de Personal anual, en base a las retribuciones brutas fijadas para el ejercicio 2016, de 9 trabajadores afectos al servicio en el CABB se cifra en 467.359,22€.
- El coste del contrato de mantenimiento, reparación y

kontratuaren kostua, lagatako lehen mailako sareari dagokionez; 483.157 eurotan kalkulatu da (BEZik gabe).

- Ibarra eta El Berróneko ponpatze estazioak, Sollanoko edateko uraren araztegia ustiatu, mantendu eta zaintzeko kontratuaren kostua, 1.053.984 eurotan kalkulatu dira (BEZk gabe); kopuru hau iraunkorra izango da kontratua betetzen den epean zehar.

- Energia elektrikoaren horniduraren kostua Zolloko presan, Sollanoko araztegian eta Ordunteko urtegiko instalazioetan, 105.117,27 eurotan kalkulatu da 2016ko ekitaldian zehar (BEZik gabe).

Datu horiek taula honetan laburbildu dira:

optimización de la red de aguas, en lo que a la red primaria que se cede se refiere se cuantifica en 483.157 € (IVA excluido).

- El coste del contrato de explotación, mantenimiento y conservación de la Estación Depuradora de agua potable de Sollano, las estaciones de bombeo de Ibarra y El Berrón asciende a 1.053.984 € (IVA excluido), siendo este importe constante a lo largo del plazo de ejecución del contrato.

- El coste de suministro de energía eléctrica a las instalaciones del Pantano de Ordunte, la Presa de Zollo y la Depuradora de Sollano se cifró en 105.117,27 € durante el ejercicio 2016 (IVA excluido).

Estos datos se resumen en la tabla siguiente:

| COSTES de PERSONAL, MANTENIMIENTO Y SUMINISTROS para AYUNTAMIENTO de BILBAO | |
|---|---|
| CAP.I Coste Bruto anual 2016 | 467.359 |
| Coste mantenimiento ETAP / año (expte. 2016-015681) | 1.053.984 |
| Coste mantenimiento Red Primaria / año (expte 100644000001) | 483.157 |
| Coste Suministro Energía Inst. Red Primaria (facturado 2016) | 105.117 |
| **Total costes** | **2.109.617** |

| LANGILEEN, HORNIDUREN ETA MANTENTZE-LANEN KOSTUAK BILBOKO UDALERAKO | |
|---|---|
| KAP.I Urteko Kostu Gordina 2016 | 467.359 |
| EUT Mantentze-lanen kostua / urte (espte. 2016-015681) | 1.053.984 |
| Lehen mailako Sarea Mantentze-lanen kostua / urte (espte 100644000001) | 483.157 |
| Energia hornidura kostua Lehen Mailako Sare inst. (fakturatua 2016) | 105.117 |
| **Kostuak guztira** | **2.109.617** |

| II. ERANSKINA | ANEXO II |
|---|---|
| **ORDUNTE-SOLLANO ETA ZOLLO HORNIDURA SISTEMETAN EGIN DAITEZKEEN BALIZKO INBERTSIO JARDUKETAK, BBUPrekin INTEGRATUTAKO KUDEAKETA AKORDIO BERRIAREN ESPARRUAN** | **POSIBLES ACTUACIONES DE INVERSIÓN A REALIZAR EN LOS SISTEMAS DE ABASTECIMIENTO ORDUNTE-SOLLANO Y ZOLLO, EN EL MARCO DE UN NUEVO ACUERDO DE GESTIÓN INTEGRADA CON EL CABB.** |
| - Sollanoko EUTa birgaitzea eta egunean jartzea | - Rehabilitación y puesta al día de la ETAP de Sollano. |
| - Sollanoko EUTa handitzea | - Ampliación de la ETAP de Sollano. |
| - Sollanoko EUTan biltegi berri bat eraikitzea | - Construcción de un nuevo depósito en la ETAP de Sollano. |
| - Ibarra eta El Berróneko Premiazko Ponpatze Estazioa berreraikitzea, zaharberritzea eta egunean jartzea, baita kasuan kasuko bultzada tutuak ere. | - Reconstrucción, rehabilitación y puesta al día de los Bombeos de Emergencia de Berrón e Ibarra, así como de sus respectivas tuberías de impulsión. |
| - Ordunte- Sollano Sistemako sarbide, hodi eta fabrikako obrak birgaitzea, garbitzea eta egunean jartzea. 1tartea: Ordunteko presa-Sollanoko EUTa | - Rehabilitación, limpieza y puesta al día de los accesos, conducciones y obras de fábrica del Sistema Ordunte- Sollano. Tramo1: Presa de Ordunte-ETAP de Sollano. |
| - Ordunte- Sollano Sistemako sarbide, hodi eta fabrikako obrak birgaitzea, garbitzea eta egunean jartzea. 2tartea: Sollanoko EUTa-Elejabarriko biltegia | - Rehabilitación, limpieza y puesta al día de los accesos, conducciones y obras de fábrica del Sistema Ordunte-Sollano. Tramo 2: ETAP de Sollano-Depósito de Elejabarri. |
| - Ordunteko presa birgaitzea eta egunean jartzea | - Rehabilitación y puesta al día de la Presa de Ordunte. |
| - Zolloko presa birgaitzea eta egunean jartzea | - Rehabilitación y puesta al día de la Presa de Zollo. |

| | |
|---|---|
| - Zolloko presa-Beteluriko EUTa birgaitzea eta egunean jartzea | - Rehabilitación y puesta al día de la Conducción Presa de Zollo- ETAP de Venta Alta. |
| - Ordunte-Sollano Sistemako SCADA BBUPren SCADA Wonderware sistemara egokitzea | - Adaptación del SCADA del Sistema Ordunte-Sollano al SCADA Wonderware del CABB. |
| - Zadorra eta Ordunte Sistemen Lehorteen Premiazko Planak modu bateratuan berrikustea | - Revisión conjunta de los Planes de Emergencia de Sequías de los Sistemas Zadorra y Ordunte. |
| - Ordunte eta Zolloko presen Larrialdi Planak eta Ustiapen Arauak berrikustea eta eguneratzea, hala badagokio | - Revisión y actualización, en su caso, de las Normas de Explotación y Planes de Emergencia de las presas de Ordunte y Zollo. |

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

# ANEXO III

# DOCUMENTACIÓN GRÁFICA



Fig. 1: Situación del embalse de Ordunte y de la ETAP de Sollano




Fig. 2: Detalle de la situación de la ETAP de Sollano

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO



PANTANO DE ORDUNTE




PERFIL LONGITUDINAL DEL APROVECHAMIENTO
Esc 1:250




ZOLLO



**Fig. 13: Detalle de la captación en el Bombeo El Berrón**



**Fig. 15:** Bombas en el Bombeo de Ibarra

